



ESKOLA KIROLA

COVID-19aren AURREAN JARDUTEKO ARAU OROKORRAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

(Bertsioa: 2020ko irailaren 4koa)

NORMALTASUN BERRIA

Eusko Jaurlaritzako, Arabako Foru Aldundiko, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol-zuzendariak osatzen duten Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak COVID-19aren aurrean Jarduteko Arau Orokor hauek onartu ditu, 2020-2021 ikasturtean hiru lurraldeetan garatuko diren eskola-kiroleko programetan ezartzeko. Era berean, arau horiek osasun agintarien oniritzia dute.

Jarduteko arau horiek foru-aldundi bakoitzaren eskola-kiroleko programetako jardueren laguntza teknikoa antolatzen edo ematen duten erakundeek jarraitu beharko dituzte, bai eta programa horietan parte hartzen duten erakundeek ere (ikastetxeek, guraso-elkarteek, kirol klubek eta -elkarteek, fundazioek, etab.), zein erakunde-motari aplikatzen zaizkion zehazten dutenak izan ezik.

Halaber, programa horietan ez dauden baina foru-aldundi bakoitzak baimentzen dituen jardueretan ere jarraitu beharko dira.

A. ALDERDI OROKORRAK

Jarduerak antolatzen dituzten erakundeek eta horietan parte hartzen duten erakundeek, jarduerak hasi aurretik, protokolo bat aurkeztu beharko dute eskumena duten administrazioetan, eskola-kiroleko jarduerak higie-ne eta urruntze-neurri guztiak eta agintariak ezarritako beste edozein arau betetzen dituela bermatzeko, bai eta COVID-19 kasu bat hautematen denean nola jokatu behar den jakiteko ere.



Erakunde antolatzaileen kasuan, protokoloa eskumena duen administrazioak onartu beharko du jarduerak hasi aurretik (2. eranskina).

Erakunde parte-hartzaileen kasuan, jarduera hasi aurretik, erantzukizuneko adierazpen bat aurkeztu beharko diote eskumena duen administrazioari, jarduera erakundean onartu duten protokoloaren arabera gauzatzen dutela adieraziz. (1. eranskina)

Protokolo hori jardueretan parte hartzen duten erakundeei edo pertsoneri jakinarazi beharko zaie, eta, horretarako, gutxienez, erakundearen webgunean jarri beharko da. Erakundeak bere webgunerik ez badu, erakunde edo pertsona interesdun guztiei zabaldu beharko die, egokien deritzon moduan.

Erakunde antolatzaileek eta parte-hartzaileek pertsona bat izendatu beharko dute beren eskumenen esparruan ezarritako protokoloa betetzen dela bermatzeko. Pertsona hori, erakundearen osasun-arduraduna izenekoa, erakundeko eskola-kirolaren arduraduna bera edo erakundeak izendatzen duen beste pertsona bat izan daiteke. (3. eranskina)

Eskola-kiroleko programetan parte hartzen duten erakundeek kirolari bakoitzaren aitari, amari edo tutoreari agiri sinatu bat eskatuko diote. Agiri horretan, gutxienez, parte hartzeko baldintzak onartuko dira, higie- eta prebentzio-neurri pertsonalekiko konpromisoa adieraziko da eta COVID-19ak kutsatzeko aukeraren aurrean erantzukizuna hartuko da, eta, beharrezkotzat jotzen badute, agintariek ezarritako arrisku-talderen batean dagoen parte-hartzailea dela adieraziko da. (4. eranskina).

B. PREBENTZIO- ETA HIGIENE-NEURRIAK

Erakundearen jarduketa-protokoloak antolaketa-sistema bat jaso beharko du, egitura baldintzak (espazioak, ekipamenduak, etab.) eta erakundearen ohiko prozedurak aztertuko dituen, pertsonen pilaketak saihesteko eta desinfekzio- eta higie- neurriak aplikatu ahal izateko (zirkulazio-ibilbideak, iritsieren/irteeren mailaketa, jardueren ordutegiak, ilarak kudeatzeko sistema, aforoak, bilera jendetsuak saihestea, informazio-kartelak eta seinaleztapenak, materiala desinfektatzea, eskuak garbitzea, etab.) jarduera egiten den bitartean. Hartutako neurri guztiek kirol-instalazio edo -espazioen erakunde titularrek ezarritako arauak eta osasun- agintariek ezarritakoak errespetatu beharko dituzte.

Eskuen higieneari begira, ziurtatu behar da pertsona guztiek eskura izango dituztela etengabe jardueraren lekuan eta leku komunetan (sarrerak, komunak, jantokiak, etab.) ura, xaboia eta eskuak lehortzeko papera, eta, ahal bada, gel hidroalkoholikoak.

Era berean, erabilitako babes-materialak (maskarak) behar bezala botatzeko elementuak jarriko dira.

Kirol-instalazio edo -espazio propioak erabiltzen badira, bereziki zainduko dira garbiketa eta desinfekzioa, garbiketa-programa trinko baten bidez, eta hainbat pertsonaren eskuekin maiz kontaktuan dauden objektu eta azalaren desinfekzioa berrikusiko da. Kontuan hartuko da Osasuneko sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko AGINDUA, gainazalak garbitzeko eta



desinfektatzeko neurriak eta SARS-CoV-2k (Covid-19ak) eragindako pandemiaren ondoriozko beste higiene-neurri batzuk hartzen dituen, bai eta haren jarraibide teknikoak ere.

Era berean, espazioen aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko da, barnean airea berritzen laguntzeko, ahal den neurrian kanpoko airearekin lan eginez, birzirkulazioa minimizatuz eta barruko aire-korronteak saihestuz.

C. MASKARAK ERABILTZEA

Maskarak uneoro erabili beharko dira, osasun-agintariek ezarritakoaren arabera.

Kirolariek ez dute nahitaez erabili beharko kirola egiten duten bitartean, jarduera fisikoa intentsitate gutxikoa den diziplina eta jardueretan izan ezik.

Hitzaldi teknikoetan, kirolariek maskarak erabili beharko dituzte nahitaez, entrenamenduetan edo lehiaketetan ematen diren kasuetan izan ezik, hala nola taldeko azalpenetan edo hutsarteetan; horietan uneoro errespetatu beharko dute pertsonen arteko segurtasun-tartea.

Era berean, kirolariek, lehiaketa edo jarduera hasi ondoren, parte hartzen hasteko zain dauden egoeretan ere erabili beharko dute, edo euren esku-hartzea amaitu dutenean baina lehiaketa edo jarduera oraindik amaitu ez den egoeretan. Kasuistikaren arabera, kirolarien jarduerak aldizkakoak direnean (lehiaketan berriz sartzeko eskubidea duten aldaketak, parte hartzeko txandak, etab.), atsedenerako edo kirola ez egiteko espazioetarako maskarak edo pertsonen arteko distantzia ziurtatzeko mekanismoak nahitaez erabiltzea ezarri ahal izango da, azken kasu horretan maskararen erabilera gomendagarria ez bada.

Teknikariek eta epaile eta arbitroek maskara eraman beharko dute etengabe, beren jarduera behar bezala egin ahal izateko ahalegin fisiko handia egin behar duten jarduera edo egoeretan izan ezik.

Jarduera, entrenamendu edo lehiaketetako saioetan kirol-jarduera fisikorako erabiltzen den denbora-tartetik kanpo, maskara nahitaez erabili beharko dute bai kirolariek eta talde teknikoko kideek, bai kirol-instalazioen edo -espazioen esparru osoan dauden gainerako pertsonak.

Betebehar horiek ez dira eskatuko osasun-agintariek baimendutako kasuetan (arnas-arazoak, ezintasunak, etab.).

Joan-etorrietan, gaua igarotzean, jantokietan eta eskola-programako jardueri lotutako bestelako egoeretan, osasun-agintariek eremu horietarako ezarritakoa errespetatu beharko da uneoro.

Kirol-modalitate eta -diziplina ezberdinetarako eta kirol-modalitate edo -diziplina bakar bati buruzkoak ez diren foru-organoen berezko jardueretarako sortzen diren arau espezifikoek atal honetan jasotakoa ezarriko dute, maskaren erabilera jarduera horien berezko ezaugarrietara egokituz.



D. OSASUN-EGOERAREN KONTROLA ETA GAIXOTASUNEN KASUAN JARDUTEA.

COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat duten —adibidez, 37°tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentsazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa— kirolariek eta erakundeko gainerako kideek ezingo dute kirol-jarduerara joan, ezta COVID-19a diagnostikatu dietelako bakanduak daudenek, edo COVID-19aren sintomak dituen edo diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari direnek ere.

Erakunde parte-hartzaileetan diharduten kirolarien gurasoek edo tutoreek, kirol-jarduera dagoen egun bakoitzean, hau hasi aurretik, kirolari horiek COVID-19aren sintomarik ez dutela egiaztatu eta ziurtatu beharko dute. Halaber, etxeko norbaiti COVID-19a diagnostikatu badiote, jarduerak burutzen dituen erakundeari eta osasun-agintariari ohartarazi beharko diete eta, hala badagokio, ardurapean duten seme-alaba edo adingabea etxean eduki beharko dute. Horretarako, ikasturtearen hasieran, familiek idatzizko konpromisoa hartuko dute dagokion kirol-erakundearekin alderdi horiek betetzeko.

Baldintza hori bera eskatuko diete teknikariei, epaileei eta kirol-erakundearen eskola-kiroleko jardueretan nahastuta dauden gainerako pertsoneri (5. eranskina).

Era berean, kirol-erakundeko kirolari edo pertsonaleko kide batek Covid-19an positibo ematen duenean, erakundean protokoloa betetzeko izendatutako arduradunak kasua Osakidetzako zerbitzuetara deribatuko du, dagozkien osasun-protokoloak aplikatzeko.

Gaixotasunaren sintomak daudela susmatzen bada (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.), erakunde parte-hartzailea familiarekin harremanetan jarriko da kirolariaren bila joan dadin. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, eta bertan baloratuko da egoera. Baloratu arte, pertsona bakandua mantenduko da. Gaixotasunaren sintomak kirol erakundeko gainerako pertsonetan agertzen badira, haiek ere etxera joan beharko dute eta gomendio berberak bete beharko dituzte.

Zuhurtasun-printzipio gisa, kirol-talde bateko pertsona batek sukarra badu edo COVID-19aren sintoma nabarmenak baditu entrenamendu, saio edo lehiaketa bat hasi aurretik*, honako hau ezarriko da:

(* Gomendatutako alde aurreko epea 48 ordukoa izan daiteke, kontuan hartuta PCR bat 24 orduan egiten dela eta, ondorioz, emaitzak ordurako izango direla.)

- Saioak edo entrenamenduak bertan behera geratuko dira, erakundeko osasun arduradunak, osasun-agintariekin harremanetan jarri ondoren, oniritzia eman arte.
- Taldeko kirol baten partida baten aurretik gertatzen bada, beste taldeari jakinaraziko zaio partida nahitaez bertan behera geratuko dela.
- Bakarkako kirol bateko lehiaketa baten aurretik gertatzen denean, antolatzaileari jakinaraziko zaio positibo eman duen pertsona horren kirol-taldeko gainerako kideek ez dutela lehiaketan parte hartuko.



E. JARDUERAK / ENTRENAMENDUAK / LEHIAKETAK

Kirol-jarduera, -entrenamendu eta -lehiaketa guztiak kontakturik gabe egin beharko dira, eta pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantziari eutsiz (gaur egun 1,5 metro).

Horrela, 2020-2021 kanpainako eskola-kiroleko programetan parte hartu ahal izateko, kirol-diziplinetako jarduerak eta lehiaketak antolatzen dituzten erakundeek beren joko-arauak egokitu beharko dituzte neurri hori betetzeko, baldin eta beren joko-arauek kirolarien arteko kontaktua ahalbidetzen badute edo pertsonen arteko gutxieneko distantzia (gaur egun 1,5 metrokoa) bermatzen ez badute. Neurri horiek bete gabe diziplina erreproduzitzea materialki ezinezkoa bada, erakunde antolatzaileek beste jarduera edo lehiaketa alternatibo batzuk proposatzeko aukera ere izango dute, kirol-diziplinari modu batean edo bestean lotuta badaude.

Kontaktu kopurua murrizte aldera, jarduerak, entrenamenduak edo lehiaketak, ahal den neurrian, honela egingo dira:

- Ahalik eta jende gutxienekin.
- Entrenamenduetan eta irakaskuntza-, detekzio-, jolas- edo kirol-jardueretako saioetan, parte-hartzaileak gehienez ere hamabost pertsonako talde edo azpitaldeetan antolatu beharko dira, jarduera gauzatzeko behar diren teknikariak barne. Beren ezaugarri bereziak direla-eta, dagokion foru-organoak salbuespen gisa kopuru pixka bat handiagoa baimen ditzake jarduera batzuetan.
- Saioak edo entrenamenduak ahalik eta indibidualizatuena izango dira, eta, ahal bada, egin beharreko ariketetan pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia mantentzen saiatuko dira (gaur egun, 1,5 metrokoa da).
- Lantaldeetan lan-azpitalde egonkorak ezartzeko ahalegina egingo da. Era berean, ikastetxeetan eta parte hartzen duten beste erakunde batzuetan egiten diren jardueretan, ahal den neurrian, ikasgeletako talde egonkorak errespetatuko dira.

Halaber, ahal den neurrian, jarduerak eta lehiaketak aire zabalean egingo dira.

Ahal den neurrian, materialak partekatzea saihestuko da. Lehiaketa/jarduerarako ezinbestekoak diren erabilera komuneko materialei gomendatutako higiene- eta garbiketa-neurriak aplikatuko zaizkie. Gainerako materialak (edariak, janariak, sendagaiak, etab.) ezingo dira partekatu.

Debekatuta dago aldagelak erabiltzea, egoerak hala eskatzen duenean izan ezik (eguraldi txarra, joan-etorriak egitea eskatzen duten lehiaketak, etab.). Erabili behar izanez gero, eskumena duen administrazioak horretarako ezarritako babes-arauek eta pertsonen arteko urrutze fisiko errespetatuko dituen sistema bat ezarriko da. Txandak egiten badira, jarduerak garatzeko ezarritako taldeak hartuko dira kontuan.

Horrela, entrenamenduen edo lehiaketen aurretik, horiek egiten diren bitartean eta ondoren antolatu nahi izaten diren hitzaldi teknikoak, baldintzek ahalbidetzen badute, jokalekuan bertan edo kirol-instalazioen harmailetan egingo dira, aldageletan edo espazio txikiagoetan egin beharrean.



Ez dira baimenduko kontaktu fisikoa eskatzen duten agurrak eta/edo ospakizunak. Erakundeek egoera horietarako kontakturik gabeko alternatibak ezartzea gomendatzen da.

Erakunde antolatzaileek eta parte-hartzaileek debekatuta izango dute jarduerak edo lehiaketak egiten diren aldi berean jarduera ludikoak edo komertzialak antolatzea.

Jarduerak eta lehiaketak antolatzen dituzten erakundeek, horiek antolatzean, kontuan hartuko dituzte parte hartzen dutenen hurbiltasun geografikoari buruzko irizpideak.

Era berean, erakunde antolatzaileek edo laguntza teknikoa eskaintzen duten erakundeek honako hauek egiteko aurreikuspenak ezarri beharko dituzte jardueren edo lehiaketen oinarrietan:

- Amaierako sailkapen-sistema alternatibo bat, lehiaketak osatu ezin diren kasuetarako.
- Beste aukera batzuk, kirolariek edo kirol-taldeek ezin badituzte jarduerak edo lehiaketak jokatu konfinamendu-egoeran edo berrogeialdian daudelako.

Proposamen alternatibo horiek, nolahi ere, eskumena duten administrazioen oniritzia izan beharko dute.

F. ERAKUNDEKO OSASUN-ARDURADUNA

Protokoloa aplikatzeko erakundeak izendatzen duen pertsona arduratuko da erakundean sartutako neurriak eta arauak betetzen direla ziurtatzeaz, eta, betetzen ez baditu, dagozkion diziplina-neurriak aplikatuko ditu bere jarduketa-eremuan.

Erakundean jarduten duten langile edo boluntario guztiei jakinarazi beharko dizkie dagoeneko ezarrita dauden prebentzio- eta higiene-neurriak eta jarduerari aplikatzen zaizkien arauak eta/edo balizko murrizketak. Neurri horiek jarduerak hasi aurretik jakinaraziko dira, edo, ondoren, erakundearen protokoloa edo osasun-agintarien gomendioak aldatzen badira.

Tokiko taldeak edo ekipoak eta bisitariak dauden lehiaketa-jardueren kasuan, toki-erakundeko osasun-arduradunak gainbegiratuko du ezarritako osasun- eta segurtasun-neurriak betetzen diren.

G. ESKOLA-KIROLEKO TEKNIKARIAK

Monitoreak edo entrenatzaileak kirolariei azaldu behar dizkie ezarritako prebentzio- eta higiene neurriak eta jarduerari aplikatzen zaizkion arauak eta/edo balizko murrizketak.

Kirol-jarduera fisikoan zehar, arduratuko da bere ardurapeko kirolarietako batek COVID-19rekin lotuta izan dezakeen edozein sintoma egiaztatzeaz eta egoera horren berri erakundeko protokoloaren arduradunari emateaz.

Teknikariek portaerak kontrolatuko dituzte eta, betetzen ez badituzte, beren jarduketa eremuari dagozkion diziplina-neurriak aplikatuko dituzte.

Jardueretako epaileek eta arbitroek arreta berezia jarri beharko dute COVID-19aren aurrean parte-hartzaileen prebentzioarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten arauen aplikazioan eta zehapenean.



Era berean, arbitrajeko material indibiduala erabili beharko da (txilibitua, boligrafoak, txartelak, etab.). Materialeak edo ekipamenduek, beren ezaugarriengatik, erabilera partekatua izan behar duten kasuetan gomendatutako higie-ne eta garbiketa-neurriak aplikatuko dira.

H. PRESTAKUNTZA ETA DIBULGAZIOA

Erakundeetako eskola-kiroleko arduradunek eta osasun-arduradunek, teknikariek, eta epaileek oinarrizko online prestakuntza bat egin beharko dute, COVID-19aren aurreko prebentzio- eta jarduketa-neurriei buruzkoa, ikuskatzen edo zuzentzen dituzten jarduerak hasi aurretik. Pertsona horiek ezin izango dute eskola-kiroleko programetan jardun prestakuntza-jarduera gainditu izanaren ziurtagiria dagokion kirol-erakundeari aurkeztu gabe. Prestakuntza hori Kirolaren Euskal Eskolak garatuko du.

Kirol-erakundeek modu batera edo bestera jardueretan parte hartzen duten kolektiboen artean (kirolariak, teknikariak, familiak, etab.), prebentzio-neurriei eta COVID-19aren aurrean jarduteko neurriei buruzko informazio-materialak zabaldu beharko dituzte. Administrazio eskudunek materialak eskainiko dituzte, erakundeek beren berezitasunetara egokitu ahal izan ditzaten.

I. JOAN-ETORRIAK

Joan-etorrien arloan eskumena duen administrazioak ezarritako arauak bete beharko dira.

Hala, lurreko garraiorako indarrean dagoen araudiaren arabera, EAE osoan egiten diren joan-etorrietan, ibilgailuaren edukieraren % 100 hartu ahal izango da, publikoa zein pribatua izan, eta nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, salbu eta ibilgailu pribatuen kasuan edo osasun agintariek baimendutako kasuetan (arnasketa-arazoak, ezintasunak, etab.) etxebizitza berean bizi diren pertsonen kasuan.

Nolanahi ere, komeni da, ahal den guztietan, joan-etorriak banaka eta modu aktiboan egitea (oinez, bizikletaz, patinetez) edo, hala badagokio, familia-unitatearen arabera.

J. SARI-BANAKETAK

Foru-aldundien eskola-kirolari buruzko araudiak baimentzen duen kasuetan, sariak ematen dituzten erakunde antolatzaileek ezarritako segurtasun-neurriak errespetatu beharko dituzte; besteak beste, maskara nahitaez erabiltzea eta sariak eta prozesuan esku hartzen duten pertsonen eskuak desinfektatzea.

Halaber, beste hainbat neurriren artean, podiumean edo sariak banatzeko lekuan 1,5 metroko distantzia gorde beharko da kirolarien artean; dominak, garaikurrak edo sariak erretilu edo antzeko batetik jasoko dituzte; eta, une oro, kirolarien eta agintarien arteko eskuzko agurrak eta besarkadak ekidin beharko dira.

Argazkia egiten den bitartean soilik kendu ahal izango da maskara zeremonien amaieran, betiere eskatutako pertsonarteko gutxieneko distantzia mantentzen bada.



K. AFOROAK

Kirol-instalazioetan, igerilekuak barne, kirola egiteko gehieneko edukiera baimendutako edukieraren % 60 izango da. Instalazioaren gehieneko edukiera azaldu beharko da, eta edukiera zenbatzea eta kontrolatzea ahalbidetuko duten prozedurak ezarri beharko dira, zehaztutako edukiera hori inoiz gainditu ez dadin.

Instalazioetan ezingo da egon jardueraren parte-hartzaileen taldeetako kide ez den ikuslerik edo beste inor, ez lehiaketetan, ez saio edo entrenamenduetan. Kirol-espaziora honako hauek baino ezin izango dira sartu: kirolariak eta parte-hartzaileen taldearekin eskola-lizentzia duten teknikariak; lehiaketa-jardueren kasuan, epaileak; kirol-erakundeetako osasun-arduradunak eta eskola-kiroleko arduradunak, dagokion administrazioan horrela egiaztatuta daudenak; jarduerak egiten diren kirol-instalazioetako langileak; eta administrazio publikoek baimendu duten beste pertsona batzuk. Lehiaketetan kirol-espazioetara sartu nahi duen edonork baldintza hori egiaztatu beharko du, lizentziaren edo ziurtagiriaren bidez.

Bi ate edo gehiago daudenean, sarrerarako eta irteerarako erabilera desberdina ezartzen saiatuko da, pilaketak sortzeko arriskua murrizteko.

L. GAUA IGAROTZEA ETA / EDO JANTOKIA DUTEN JARDUERAK

Egin beharreko jarduerak gaua igarotzea eskatzen badute, partekatutako logelak jarduera garatzeko azpitaldea osatzen duten kirolariek okupatuko dituzte, ehuneko hirurogeian, erakundeko teknikariek gainbegiratuta. Ohatzea erabiltzen bada, pertsona bakar batek beteko du. Gutxienez bi metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da okupatutako oheen artean, edo hesi-neurriak ezarriko dira.

Kanpin-dendak erabiltzen direnean, pertsona batek lo egin ahal izango du denda bakoitzean. Parte-hartzaileak bizikideak badira, denda bera okupatu dezakete. Dendak fisikoki bakartuta dauden hainbat gela baditu, logela horiek hartu ahal izango dira, eta egunero jaso, garbitu eta aireztatuko dira. Halaber, gaua vivac egoeran igarotzea baimentzen da, zakuen segurtasun- eta higiene-distantzia mantenduz.

Jantoki itxiak erabili behar badira, edukieraren ehuneko hirurogeira mugatuko da haien okupazioa, eta jankideen arteko segurtasun-tartea mantenduko da. Txandak ezartzea gomendatzen da, jarduerak garatzeko ezarritako azpitaldeak mantenduz. Jantoki irekien kasuan, pertsonen arteko segurtasun-tartea mantendu beharko da. Inolaz ere ezin izango da janaririk edo tresnarik partekatu horretarako (platerak, edalontziak, mahai-tresnak, ezpainsapiak, etab.).

M. GIZARTE-DESABANTAILAN DAUDEN KOLEKTIBOEN BABESA

Erakunde antolatzaileek eta parte-hartzaileek, ahal duten heinean, neurriak ezarri beharko dituzte baliabide gutxien dituzten eta COVID-19aren pandemiak ekonomikoki kaltetu dituen familiek kirol-jarduera egin ahal izan dezaten.



N. NEURRIEN EZARPENA, BETETZEAREN KONTROLA ETA ZEHAPEN-ARAUBIDEA

Lehiaketak edo jarduerak antolatzen dituzten erakundeek, ahal den neurrian, aldatu egingo dituzte lehiaketen/jardueren egitura eta joko-arautegiak, dokumentu honetan ezarritako neurri guztietara egokitzeko, eta zehapenak txertatuko dituzte beren araudietan, ez-betetzeen kasuetarako.

Parte hartzen duten kirol-erakundeek ere beren jarduerak egokitu beharko dituzte, haien baitan neurriak betetzen direla zaindu beharko dute eta, betetzen ez badituzte, barneko diziplina neurrien proposamen argia garatu beharko dute.

Era berean, udal-, foru- eta autonomia-ikuskaritzako zerbitzuak arduratuko dira, beren eskumenen esparruan, administrazio-mailan ezarritako neurriak betetzen direla zaintzeaz. Balizko ez-betetzeak ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren (COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko premiazko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurriei buruzkoa) VII. kapituluan, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorren VI. Tituluan eta, hala badagokio, ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 35. artikulutik 39. artikulura aurreikusitako moduan zehatuko dira.

Halaber, EAEn garatutako eskola-kirolari dagokion diziplina- eta zehapen-araubidea aplikatuko da.

O. KIROL-DIZIPLINEN EDO PROGRAMA PROPIOEN ARABERAKO ARAU ESPEZIFIKOAK

Kirol-modalitate eta -diziplinei dagozkien eskola-kiroleko jarduerak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren modalitate eta diziplinen katalogoan jasotakoak, pandemiaren aurrean jarduteko arau komun batzuekin garatu beharko dira hiru lurraldeetan.

Horretarako, Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak kirol-modalitate eta -diziplinen arabera arau espezifiko batzuk onartuko ditu. Arau horiek protokolo honetan ezarritako arau orokorrak errespetatu eta osatuko dituzte, eta hiru lurraldeetako kirol-diziplinetako eskola-kiroleko jardueretan txertatu beharko dira.

Kirol-modalitate edo diziplina jakin batean arau espezifikorik ez badago, dokumentu honetan ezarritako arau orokorrak bakarrik hartuko dira.

Halaber, foru-organoek, egokitzat jotzen badute, kirol-modalitate edo -diziplina bakar bati buruzkoak ez diren jarduera edo programa propioetarako arau espezifikoak ezarri ahal izango dituzte.

P. JARRAIPENA

Dokumentu honetan jasotako prebentzio-neurriak aztertu eta eguneratu egin beharko dira, baldin eta egoera epidemiologikoan izandako aldaketek, ebidentzia zientifiko berriek eta/edo osasun-araudian izandako aldaketek hala eskatzen badute.

Lurralde historikoetako foru-organoetako eta Eusko Jaurlaritzako kirol-zuzendariek osatzen duten Eskola Kirolaren Euskal Batzordea, Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008



Dekretuak arautzen duena, arduratuko da arau hauen jarraipena egiteaz eta, hala badagokio, egokitzeaz.

Horretarako, eta pandemiaren inguruabar bereziak direla eta, gutxienez ohiko jarraipen-bilera bat egingo da 2020-2021 ikasturteko hilabete bakoitzean, eta, nolnahi ere, egokitzat jotzen diren bilkura berezi guztiak ezarri ahal izango dira.

Protokolo honetan edo modalitate edo diziplinetako arau espezifikoeetan egin beharreko aldaketak egiteko, Eskola Kirolaren Euskal Batzordearen alde aurreko onarpena beharko da, goragoko mailako arau baten arabera aplikatzekoak direnak izan ezik. Onartzen diren aldaketak aplikatu beharreko eskola-kiroleko erakunde antolatzaileen eta parte-hartzaileen artean zabaldu beharko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 24a

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza